

MEMORIA2016TXOSTENA

**SOLI
DARI
TZA
SUSPERTZEKO
BADIRA
LANABESAK**





| Aurkibidea

- ELKARTE BURUAREN AGURRA
- ELIKAGAIEN BANKUA ZER DEN
- NOLA JAIO ZEN ARABAKO ELIKAGAIEN BANKUA
- ARABAKO ELIKAGAIEN BANKUA (BAA)
- JOKABIDE ONEN KODEA ELIKAGAIEN BANKUKO BOLUNTARIOENTZAT
- ZER EGITEN DUGUN
- NOLA EGITEN DUGUN
- ZUZENDARITZA TALDEA
- BOLUNTARIOEN ZERRENDA
- 2016KO BILKETA ERRALDOIKO TALDE ARDURADUNAK
- 2016 URTEKO EKINTZAK
- ZIFRA
- TXOSTEN EKONOMIKOA
- 2017 URTEAN GARATZEKO EKINTZA-LANAK

Adiskide agurgarriak:

Jaso denok nire agur beroa. Eskuarteaz duzun Arabako Elikagaien Bankuaren 2016. Urteko Txostenak egitura ezberdina du, eta baita informazio multzoan zein irizpidetan.

Beste urte batez Arabako Elikagaien Bankuak askoren begirunea jaso du. Bederen uste genuen 2016 urtea erosoagoa izango zela familietan, lan harremanetan eta norbanakoek duintasunez bizitzeko lagungarri zaizkien zerbitzu sozialetan. Tamalez ez da horrela gertatu.

Urte honetan Arabako Elikagaien Bankuak 18 urte bete ditu eta jada heldutasunera iritsi da. Handitzen doa eta harrigarri suertatzen da bere garapen bidean hartu duen abiada. Sortze-ideia jaio zenean ba zirudien epe motzerako zerbait zela. Adiskide talde txiki eta gogotsutik sortu zen. Hain zuzen, baliabide gutxi eta asmo biziz, batez ere jakiek alferrik gal ez zitezen helburuarekin. Soberakinak eta pobrezia arteko desorekari konponbidea jarri nahian solidaritza sustatu eta giza balioak hedatuz. Adiskide suhar haiei ez zitzaien

burutik pasatzen denborarekin Arabako Elikagaien Bankuak hainbeste iraungo zuenik.

Elkarteak heldutasun mailara ailegatu dela ospatzearekin batera, jakitun gara heldua bada hainbeste boluntarioek beretik eman eta arduraz jardun izanagatik dela. Heldutasuna ere eskuzabal eta solidario diren arabar kopuruan, interesik gabe laguntzen duten hainbeste emaileak. Halaber heldutasuna jakien eguneroko alferriko hondatze eta galtzea ekiditen. Eta heldutasuna zerbitzu azpiegiturak berriak antolatzen

Bete, 18 urte bete ditu. Baina gero eta onuradun pobre gehiago dago. Halaber krisi ekonomikoaren luzapenagatik eskasia pairatzen duten familien kopurua. Hainbat gutxieneko baliabide faltan daude eta bazterketa sozialaren arriskuei aurre egin beharrean aurkitzen dira. Euskadin 3.000 haur daude poteko janariaren edo esne faltan. Baita lekale eta pixoihal barik. Horietatik Arabako Elikagai Bankuak 1.100 lagundu ditu. Galdera hauxe da: zenbat urte egin beharko ditu laguntzen Arabako Bankuak?

Bankuan badugu itxaropena ezkortasun eta ziurgabetasun giro honen gainetik. Sinetsirik gaude pobreziak behera egingo lukeen heinean Bankuak ere desagertzera joko lukeela. Duintasunak eta neurritasunak eskatzen duena guztiek balute, gizaki orori eskubidezko zaiona -ondasunen banaketa hobea, edota familia aurrera ateratzeko soldata nahikoa- orduan elkarte bezala desagertuko ginatete.

Eskertu beharrean gaude. Nire esker zuzena arabar hiritarroi, boluntarioei, elikagai enpresei, erakunde publiko eta pribatuei, talde eta norbanako emailei, komunikabide zein ikastetxei, eta izenik gabeko hainbesteri. Erabateko eskerrak guztioi, inor alboratu gabe. Bereziki eskertzen eta gogoan ditut Bankuarekin hainbat urtetan elkarlanean aritu eta jada gure artean ez direnak. Eskerrak eman zenuten guztiagatik.

Txostenean ageri diren ekintza solidarioak gauzatu dute aurtengo jarduna. Batez ere, aipagarri dira:

- **Aurrez aurreko harrera** onuradunei Brasil kaleko egoitzan. Bankuak erabakia du elikagaien banaketak ibilbide bakarrean ematea. Horrela gizartea aurrean sinesgarritasun irudia zaintzen du, gardentasuna eta zorrotasuna frogatuz. Honelakoak ezinbestekoak baitira gero gizartetik eskuzabal

jasotzeko. Ildo horrek bermatu nahi du Bankuak banatutako jakiak benetan behar dituztenei helarazten zaizkiela, ezereen truke gabe. Onuradunak AGLEko (Arabako Gizarte Langileen elkarte) adituen balorazioa jasotzera lotuta daude.

- **Uda Ikastaroetan parte hartzea** EHU Unibertsitateak gonbidatuta. Bankuaren presidenteorde Jose Andres Gabilondok "Dohaintza, bilketa eta merkatal esparrutik kanpoko banaketa" txostena aurkeztu zuen. Azalpenetan ezaugarri esanguratsuak aurkeztu zituen, gero mahai inguruan irizpide trukaketa piztu zutenak.
- FESBAlek (Estatu mailako elikagaien Bankuen Federazioa) sustatutako Elikagai Bankuen **Kanpaina Erraldoiaren** arrakasta. Honetan arrakastatsu: solidaritzazko balioekiko arabarrak sentikor egitea, merkatal gunetan txandak egiteko antolakuntza bikaina, supermerkatuetako langile eta arduradunen jarrera aldekoa, boluntarioek euren onena ematea, bono zein jakien bilketa egokia.

Bestalde Arabako Elikagaien Bankuak 2017 urterako egitasmo hauek ditu:

- **Arabako Lurralde Historikoko behartsuei laguntza.** Arabako Foru Aldundiak babestutako "Landa eremuko pobrezia" egitasmoa bidez.
- **'Ikastetxetik Auzora' egitasmoa.** Arabako Elikagaien Bankuak 'Ikastetxetik Auzora' Hezkuntza Egitasmoaren garapena Gasteizko ikastetxe batzuekin batera 2016-2019 urtealdian parte hartzea babesten du.
- **Ikastetxetan balioak lantzeko Proiektu didaktikoa**

Zuen guztion babesa gure lokalak zabalik mantentzea ahalbidetu du. Aldi berean laguntzak zein elikagaien banaketak urtez urte areagotuz doaz. Eskerrak zuen elkarlanagatik; baldintza pobretan diren askok gure elkartean harrera jaso dute eta biziera nolabait hobetu zaie.

Daniel Fernández Conde
Arabako Elikagaien Bankuko Presidentea

Elikagaien Bankua zer den

“Banku” hitza esamolde homonimoa izanik aldi berean esanahi desberdinak izan ditzake. Gehienetan esangura hau ematen zaio: “diruarekin korritu lanak egiten duen erakundea, gordailuak bildu eta irabazian mailegatuz”. Elikagaien Bankuaren ezaugarria, ordea, “Herri intereseko elkarteak, irabazpen asmorik gabea, boluntarioz osatua, jakiak jaso, birziklatu eta dohain moduan

laguntza zentroetan banatzen dituena. Horretaz gain jakiak biltzen ditu behar haina ez dutenen alde. Emandako jakiak “jateko modukoak” dira.

Horretan datza Elikagaien Bankuen ezaugarria.

Nola jaio zen Arabako Elikagaien Bankua

Hobeki ulertzen da egungo egoera begirada urte gutxi batzuk atzera bota ezker. Horrela hobeto ulertzen dira Arabako Elikagaien Bankuari egun dagozkion esangura, helburua, misioa, ikuspegia eta balioak.

Esan daiteke 90-95 urtealdian hiritarrak Ongizate Gizartean bizi zirela. Oroz gain, kontsumoa: are gehiago kontsumitu orduan eta hobe. Baina 96-97 urtealdian soilik beharrezkoena kontsumitzea zen joera. Hurrengo urtetan, 98-99, gutxienekoa ere kontsumitu ezin dezakeen multzoa ageri da. Azken urtetan gutxienekoa ere inoiz lortu ez dutenak ageri dira. Ia betidanik pobre direnak.

Gutxienekoa ere bereganatu ezin dezaketen beharretatik sortzen da Arabako Elikagaien Bankua.

Orduan hasten da gutxienekoaren eskasian daudenei laguntzeko premia, pobrezia eta bazterketa soziala areagotzen ari zirelako. Langabezia goraka zihoan eta ondorioz familia askotan diru-sarrerak oso urriak ziren.

Egoera horretan boluntario talde txiki batek bere ekarpena egin nahirik Arabako Elikagaien Bankua sortzen du. Nabaritzen ari zen pobrezia (etorkinak, langabetuak, baztertuak...) erantzun bat eman nahi zen.

Hor kokatzen da Bankuaren sorrera. **Kontsumo-ezinek bizkortzen du sortu izana.**

Arabako Elikagaien Bankua 1998 urtean hasten da, bi gertakarik eraginda.

1. Bizirik irauteko behar dutena erosteko ere dirurik ez dutenen kopurua. Euskadiko populazioaren % 6,5a pobrezian dago. Europa mailan 43 milioi biztanle dira elikagai pobrezian. Mundu mailan 800 milioi gose bizi dira.

2. Bestalde, erabili daitezkeen jakiak alferrik galtzen dira. Supermerkatu batzuk edukiontzira botatzen dituzte soberazko jakiak. Badira behar baino jaki gehiago erosi eta gero baztertzen dituztenak. Salgairako balio ez duten jaki batzuk kontsumitu daitezke. Edukiontzira botatzeak ez die axolarik, familia batzuk hortik probestuko dutela usterik.

Hainbeste erosi eta alferrik galtze horren aurrean boluntarioak botatako jakiak biltzea otu zitzairen. Jakiez betetako edukiontzia ekidin nahi zituzten, bertan bizi irauteko ez dutenak haietan lardaska ez ibiltzeko.



Arabako Elikagaien Bankua (BAA)

Erroldatze eta legeztatze

- Arabako Elikagaien Bankua irabazpen asmorik gabeko eta Ongintzako Elkarte gisa 1998ko martxoaren 16an Eusko Jaurlaritzaren ebazpenaz, AS/A/07264/1998 kodeaz izendatua izan zen.
- Bankua jardura publikoko Elkarte gisa aitortua izan zen 2002ko urtarrilaren 8an, Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez, 8/2002 zenbakiaz.
- Bankua Elkarteen Udal Erroldan onartua izan zen 1999ko azaroaren 18an, 177 zenbakiaz.
- Bankua Ogasun Agentzian zerrendatua izan zen, G/01265610 Identifikazio Fiskalaren Kodeaz.

La Diputación Foral de Álava ha tipificado al BAA como entidad con actividades dentro del Mecenazgo Prioritario, en el ámbito de la R.S.E. Esta consideración supone que los donantes tengan un mayor beneficio fiscal por sus aportaciones. Las donaciones, así como las aportaciones de alimentos, son desgravables en el IRPF, y en el impuesto de sociedades, respectivamente.

El BAA está autorizado para emitir las certificaciones de desgravación, al ser una institución declarada de utilidad pública según decreto B/2002 del 8 de enero de 2002 (Botha n.55, del 17 de mayo de 1996)

Beste Elkaratekiko harremana

Bankua bere kudeaketan buruaskia da. Euskadiko Elikagaien Banku Federazioko kide izanik, Estatu mailan Espainiako Elikagaien Bankuen Federazioko partaide (FESBAL) da, eta Europar Batasunetik elikagaien banaketa behartsuenen artean zabaltzeko Ingurumen, Landa eta Itsas Eremuko Elkarteen partaide (FEGA).



Arabako Elikagaien Bankuaren zutarriak

Badira Bankuari sendotasuna eta bermea ematen dizkieten irizpideak.

- **Dituen Helburuak:** Bazterketa, lan eza eta pobrezari aurre egiteko laguntza eskaintzea, elikagai eta oinarriko beste osagaien bilketa, biltegiatze eta doako banaketa Laguntza Zentroei eta beharrea diren norbanakoei bideratuz, baita egoerak eskatutako laguntzako bestelako edozein ekintza bidez.
- **Lantzen duen misioa:** Jakien doako bilketa (soberakinak bota edo gaizki erabil ez ditzaten), bereizi eta birziklatu ondoren dohainik banatuz.
- **Zabaltzen duen ikusmira:** Araban elikagaiak berrerabiltzen erreferentziatzko izatea, Enpresa, Talde eta Erakundeen arteko elkargune izanez hauei dagokien Enpresaren Erantzukizun Soziala gizarte onurara bideratuz, Arabako behartsuenentzat jakiak eta bestelako laguntzak lortzeko helburuarekin.
- **Jorratzen dituen balioak:** Boluntario gisa aritzea, Zintzotasuna, Herstura, Gardentasuna, Elkarlana, Solidaritza, Eskuzabaltasuna, Iraunkortasunari lagunduz eta Ingurunearen Babesa. Jakiak alferrik galtzea ekidinez.

Jardueraren esparrua

Arabako Elikagaien Bankuak (AEB) nagusiki Araban du jarduna. Euskal Herriko Elikagaien Bankuen Federazioaren partaide da Hiru Lurralde Historikoei dituzten ekintza solidarioak partekatuz. Beste mugakideekin elkarlana eta jakien trukaketa ere izaten da: Burgos, Nafarroa eta Errioxa eta Santander. Baita Estatuko beste Bankuekin, horretarako baliabide informatikoa erabiliz, soberakin eta hutsuneen berri izateko.

Jokabide Onen Kodea Elikagaien Bankuko boluntarioentzat

1. Elikagaien Bankuak politikaz kanpoko eta ez-konfesionalak dira.
2. Gobernu Batzordeko kideak ez dute inoiz diru ordainik jasoko.
3. Ordaindutako langileak harik eta gutxien izango dira.
4. Goi mailako arduradun publikoak Bankuarekin loturak izatea ekidingo da.
5. Bankuan jasotako jakiak Ongintza Elkar-teetara bideratuko dira, ez beste ezertara.
6. Elkarlanean ari diren Ongintzako Taldeei ez zaie inola diru ordainik eskatuko, ez zeharka ezta zuzenean.
7. Jasotako emarien hartzailera nortasun agiri bidez adierazia egongo da.
8. Bankuaren helburu ere badira boluntarioen gogobetetasuna eta lan giro egokia.
9. Kideei informazioa eta parte hartzea ahalbidetzen bereziki zainduko da.
10. Solidaritatea, neurritasuna eta kontsumo arduratsua Bankuaren balio eta helburuen artean izango dira.
11. Gure erakundearen lehentasuna behar larrian diren pertsonak dira. Beraieratuz gara garena.
12. Boluntarioak dira gure altxorra. Landu ditzagun elkar-ulertzea, begirunea eta laguntza.
13. Erakundearen boluntarioak talde baten izaera dugu. Talde lana ez litzateke norberekierengatik oztopatua izan behar.
14. Prestakuntza boluntarioen eskubidea da, beren zeregina zuzen betetzeko.
15. Edozein lan ongi egitea da gure helburuetako irizpidea.
16. Jasotako jakiak ez dira gureak. Geu soilik administrari gara.
17. Eman zaizkigun jakiak ongi erabili behar ditugu, txukun eta profesionaltasunez.
18. Kudeaketaren gardentasuna mugarik gabekoa behar du izan.
19. Sozialki gure portaera eredu-garria behar du. Justizia eta solidaritzaren lekuko izan behar dugu.
20. Gure jardueraren arrakasta atxikipenean lortuko da. Eman ahal duzunetik, baina izan atxikipena eman duzun horretan.



Zer egiten dugun (Jakien erabilerarako Prozedurak)

Soberan diren jakiak BILDU eta AUKERATU, jakiak baldintza onenetan irauaraziz, behartsuen aldeko elkarteei eta familiei doan BANATUZ

JAKIEN BILKETA

Jakiak batez ere Emailearen esparruan jasotzen dira, jatorriaren araberako aukeraketa eginez:

- **Sistematikoa** (egunero, astero, hamabostero ala hilero jasoz)
- **Aldian aldikoa** (aldez aurretik programatu gabekoak)
- **Kanpainak** (zenbatekoa eta garaia planifikatuta daude)

Jakien jatorria:

- Administrazio Publikoak eta Erakunde Ofizialak...
- Nekazal elikadurako Enpresak
- Handizkako Banatzaileak
- Hiper eta Supermerkatuak - Autozerbitzuak
- Merkatal guneetako bilketa Jardunak (Kilo kanpaina)
- Enpresa pribatuetan bilketa Jardunak (Solidaritza kanpaina)
- Ikastetxeetan bilketa Jardunak (Eskuzabaltasuna kanpaina)

Nola egiten dugun (Giza Baliabideak)

LAN TALDEA

Bankuaren helburu soziala lortzeko oinarrizkoa da. Gizon nahiz emakumezko boluntarioz osatua dago, Bankuaren alde euren denbora gogotsu, ekimen irmoa eta esperientziaduna jartzen dutenak.

Jatorri desberdinekoak dira: alor ezberdineko taldeak, jubilatua, lan sasoikoak eta gazteak, bakoitzak aukeratutako astia eskainiz.

JAKIEN BEREIZKETA

Jasotzeko unean lekuan ala Bankuaren biltegietan bereizten dira.

- Egokitasuna aztertuz (itxura, iraungitze data eta beste). Bereizterakoan 10 irizpide erabiltzen dira. Adibidez: jogurtak, ogi karratua, patata frijituak, opilak, galletak, freskagarri eta edari alkoholdunak, pasta, arroza eta lekaleak, konfitura eta gurina, hestebeteak eta gazta onduak, sopak eta sobrezko saltsak, tomate frijitua brik kartoian..., iraungitze dataz harago jan daitezke. Kontsumo lehenetsiko datak soilik adierazten dute noiztik aurrera gal ditzaken jakiak bere dohainak (OCU, 2014ko abuztua).
- Familien arabera bereizi eta sailkatuz (jakiak 10 familiako bereizten dira).
- Banatzeko prestatuz.

JAKEIN BANAKETA



Elikagaiak Bankuaren lokaletan hartzaile hauei banatzen zaie:

- Harrera Zentroak, Egoitzak eta jantoki sozialak
- Etorकिन Zentroak
- Udalak eta Elkargo publikoak
- Parrokiak eta Erakunde erlijiosoak
- Baztertuen Elkarateak
- beste Elikagai Bankuak

KUDEAKETA ZUTARRIAK

- Estatutuak
- R.R.I.
- Plan Estrategikoa, hiru urterako lan-ildoak finkatzen dituena.
- Urteko Kudeaketa Plana
- Hiru hilean behineko Kudeaketa Planaren Txostena
- Gobernamentu taldeak eta eragileak
- Urteko Txostena, Bankuaren aurkezpen gisa

Zuzendaritza Taldea



Boluntarioen zerrenda

Álvaro Gómez López
Andoni Zaldúa Iñurrategui
Andrés Rodeiro Louzao
Aurora Prieto Vazquez
Camino Urdiain Martínez
Cipriano Palma Palma
Daniel Fernández Conde
Dolores Lana Zabala
Eduardo Argote Pérez del Palomar
Eleuteria Martín Andrés
Esther Izquierdo Marquín
Eva Gil De Prado
Fco. Javier Irisarri Lpz. de Goicoechea
Félix López de Aberásturi López de Arregui
Félix Vigalondo Ortiz de Urtaran
Fortunato Cibrián Castillo

Francisco Centeno González
Isabel Villalba Alcaya
Isidro Bada Hernández
Jaime Bobadilla Sancha
Jaime Rubias Carrera
Javier Galdos Ugarte
Jesús M^o Ciganda Iriarte
Jesús Maria García Morketxo
José Andrés Gabilondo
Mallaviabarrena
José Antonio Munguía López
José Luis Goikoetxea Bergaretxe
José M^o Tamayo Ruiz
José María Macario Valencia
Juan Gallardo Cano
Juan Ignacio Barrio García

Laura Beitia Garro
Luis M^o Ortiz de Arrizabaleta
Margarita Novales Salcedo
María Teresa Angulo Sáez de Argandoña
Marisol Ortiz Urbina
Miguel Ángel Fernández de Matauco
Martínez de Compañón
Natividad Morrás Alfaro
Patxi Elorza Honrado
Pilar Sancha Ortega
Ramón Rodríguez Merinero
Ricardo González de Zárate Fdz. de Aranguiz
Segundo De la Hera García
Susana Corral Marrodán
Vicente Melón Blanco
Yon Maeso Mendizábal

2016ko bilketa erraldoiko talde arduradunak

Koordinazioan: Camino Urdiain Martínez

Alfonso Lourido
Antonio Navarro
Antonio Vila
Blanca Carranza
César Guzmán
Conchi López
Gabriel Sánchez
Jaime Rubias
José Ángel San Martín
José Balerdi Múgica

José Luis Espinosa
José Luis Fernández de Pinedo
José M^o Melgosa
Julián Gubia López
Kepa Fernández de Arroyabe
Laura Beitia Garro
Luis Alfonso Espariz
M^o Carmen Pérez de Arriluca
M^o Victoria Apellaniz
Manu Zabalza
Margari Novales
María Luisa Moreno Redin
Matías Becares

Mertxe Fernández Aldasoro
Mitxel Izal
Olga López de Armentia
Purificación López de Armentia
Sinforiano Martín
Susana Corral
Tomás Díaz de Guereñu

Administrazioan

Cristina Maestro Pelegrín
Lourdes Arambarri Bengoa



2016 urteko ekintzak

Gasteizko Udala

Bankuaren boluntarioei Udalaren Harrera ekitaldia

Mugarik gabeko musikariak

Sebastian Iradierri eskainitako diskoaren aurkezpena, sarreran jakiak bilduz

Iberian Partners Coca-Cola

Coca Colaren kanpaina Alaves futbol taldeko jokalariek sinatutako botila Bankuaren aldeko enkantean

URTARRILA

Aernova

Langileen arteko jaki bilketa eta enpresaren aldetik horren parekoaren dirutza emaria

“Urrezko Zeledon” Elkarteak

Bankuaren presidentearen hitzaldia “Kontsumoan kateatuta. Arabako Elikagaien Bankuaren lehena, oraina eta geroa”.

OTSAILA

Lautada Waterpolo Taldea: Neska-mutil hasiberrien 3. Txapelketan jaki bilketa

NCLIC Ikastetxea: Ikastetxeko ikasleen familiek jaki bilketa

Caixa Fundazioaren Ekintza Soziala eta FESBAL: “Biboterik gabeko haurrik ez” Kanpainen Estatu osorako milioi litro esne eskura ematea

Carrefour: Aretxabaleta eta Araba Jenerala kaleko dendetako bezeroen arteko jaki bilketa kanpaina

Allianz Aseguruak: Probintziako 21 bulegoetan jaki bilketa kanpaina (Gosearen aurkako Laps for life 93 Egitasmoa)

“La casa de mi abuela” taberna: Bezeroen arteko jaki bilketa kanpaina

MAIATZA

Aisia Events: Jaki bilketa kanpaina

Arabako Elikagaien Bankua: Heraclio Palomino Bankuko presidente ohiaren heriotza

Eroski Boulevard: Jaki bilketa Hirukide elkarteko boluntarioen laguntzaz

Lolek Kultur Elkarteak: Diru-bilketa Carmen elizan Armentia gaineko Lidl-en elikagaiak erosteko

Sociedad Ciclista Vitoriana: Elkarreak sustatutako bizikleta lasterketa-kideen artean jasotako dirua

EHU/UPVko Uda Ikastaroak: Bankuaren Presidenteordearen txostena: “Merkatal esparrutik kanpoko emaitzak, bilketa eta banaketa”

EKAINA

Mutualia

Langileen artean jaki bilketa

Trilegutio

TRILegutio 2016 (II Triatlino-Cross Legutio) lasterketan Bankuaren aldeko kanpaina

Azken egunetako Santuen Jesukristoren Eliza

Jaki bilketa kanpaina

IRAILA

Arabako Elikagaien Bankua: Julian Perez Calleja boluntarioaren heriotza

Michelin Proyectos: Jaki bilketa kanpaina

Eulen eta Eulen Flexiplan: Jaki bilketa kanpaina

Vital Fundazioa: 18.200 pixoihal probintziako 550 haurtxoentzat

Gasteizko Udala: Gasteizko Udalarekin hitzarmena sinatzea

EITB: EITB sustatutako Solidaritzaren aldeko “Zeu Zara” saria Arabako Elikagaien Bankuari, herritarrek bozkatua

URRIA

2016 urteko ekintzak

Arabako Foru Aldundia: Arabako Foru Aldundiko Ongizate Sailari "Arabako Landa Eremuan Lehen Arreta" egitasmoaren aurkezpena
Arabako Elikagaien Bankua: Arabako Elikagaien Bankuaren "Antolamendu eta Kudeaketa Planaren" onarpena

MARTXOA

Begirune handiko Artisauek: Jaki Bilketa Langraizeko Herri Azoka Solidarioan
Gasteizko Triatloia: Asier Urbinaren eraginez Gasteizko Triatloian partaide eta ikusleen jaki bilketa, Ironman deituriko kanpainan

UZTAILA

Kontzertu Solidarioa: Gurasoak-San Viator Abesbatza eta Gandarwa musika zelta taldeak Gasteizko San Pedro elizan kontzertu solidarioa

Vital Fundazioa: Azaroa amaierako "Bilketa Erraldoia"ren aurkezpena Casa del Cordon Etxean komunikabideei

Jaialdi Solidario: Europa Jauregian Jaialdia "Bilketa Erraldoia" kanpaina aurkeztu eta girotzeko hiriko artisten parte hartzea (Mago D'Albéniz, Enrique Loyola, Lobo eta Carmine, Araba Abesbatza) eta kirol zein kultura arloko ezagunak (Juanma Bajo Ulloa, Toti Mtz. de Lecea, Alaves futbol taldeko Presidentea, Tania Lamarca, Almudena Cid, Eva Garcia Saenz de Urturi).

Bilketa Erraldoia 2016: Azaroaren 25 eta 26an egin zen, hiriko eta probintziako 81 supermerkatutan.

667 boluntario eta ikastetxetako beste zenbait partaidek parte hartuz (Egibide, San Viator, Carmelitas, Presentación de María, Corazonistas, Mercedarias, Marianistas, Escolapios, Paula Montal, San Prudencio eta Nazareth). Halaber Gasteizko Elkarrekin (Basatiak blusen koadrila, Correos elkargoko langileak, Anti-Sida Batzordea, Síndrome de Down, Los Ángeles skaut taldea, IRSE, Lolek) eta probintziatik (Amurrioko Laguntza, Aguraingo Alai, Dulantziko Dulabea, Rivabellosako Kultur elkarte eta Laudioko Elkarrekin). Guztira 1.150 partaide, eskualdeka 30 koordinatzailek zuzendutak.

Guztira 213.757 kilo bildu zen: jakiak, gorputzerako eta haurrentzat higiene produktuak, ekoiztuak zein diru-bonotan

Gorbea Irratia: Eguberriko Loteria salmenta, Bankuarentzat euro bat gehituz

Egibide Ikastetxea (Nieves Cano): "Stykers Boom" ikasle egitasmoa, on-line salmentaren etekinak Bankuaren alde emanez

AZAROA

Begirune handiko Artisauek: Jaki Bilketa Langraizeko Herri Azoka Solidarioan

Arabako Foru Aldundia: Arabako Ahalduen Nagusi Ramiro Gonzalezek eta Ongizate Foru Ahalduen Beatriz Artolazabalek bisita Jundizko biltegira

Elikagaien Bankuen Euskal Federazioko Boluntarioen Batzar Orokorra: Arabako Añana Gatzaga herrian egindako Batzarra, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako 170 partaidetik gora bildu zituen, Añana Gatzagako gatz-egituren paisaia berezia bisitatu zutela

Vital Fundazioa: Vital Fundazioa eta Arabako Elikagaien Bankua arteko elkarlan hitzarmena izenpetzea

APIRILA

Okerrak blusen koadrila: Bankuari laguntza abuztuaren 6a arratsaldez Arca plazan egindako Haurren Ginkanan jakiak bilduz

Basatiak blusen koadrila: Andra Mari Zuriaren jaien programan Andra Mari Zuriaren plazan Herri Bazkari solidarioa

Boliga (Cuenca): Gaztela Mantxako herri honek Bankuarekiko begirune solidario eta senidetua, bertoko aldizkarian Bankuaren Presidenteari elkarriketa argitaratu ondorenetik

ABUZTUA

Red Celtas MC Moteros: Gasteiz zehar ibildaldi solidarioa jakiak bilduz

Talگو Patenteak: Eguberriko Kanpaina jakiak bilduz

CIC Energigune: Eguberriko Kanpaina jakiak bilduz

Magic All Goal Devir Iberia Barcelona: Eguberriko Kanpaina jakiak bilduz

Lakuabizkarra ikastola: Ikastetxeko Guraso Elkarrekin sustatutako Eguberriko Kanpaina jakiak bilduz

Azkar Dachser: Eguberriko Kanpaina jakiak bilduz

Egibide Ikastetxea: Tania Lamarca bultzatutako Tailer hezitzailea Solidaritza gaiaz. Sentiberatasun ekintza horretaz gain Bankuaren aldeko "pintxo potea"

La cuchara de D^a Lola hotela (Izarra): Eguberriko Kanpaina jakiak bilduz

Gasteizko Armategi Aretoa: Eguberriko Kanpaina jakiak bilduz

Mendizabala Lanbide Institutua: Eguberriko Kanpaina jakiak bilduz

Andra Maria Zuriaren Plaza: 16 metro luzeko Pankarta "Bilketa Erraldoia" 2016ko parte-hartzaileak eskertuz

ABENDUA

ONURADUNAK OROTARA

7.500

Bide hauetatik jasotzen dute onura...

... Elkarteeek zenbat norbanako eta familiei banatu dizkiete (41)	6.604
... Behartsuen aldeko Banaketa Elkarteeek kontsumorako emana (30)	896

BANAKETARAKO ELIKAGAIK ZEIN ELKARTEEI EMATEN ZAIZKIEN

71


... Europako Elikagaien aldeko Laguntza Planean sartuak direnak	14
... Fruta eta Barazkien Programa Nazionalan sartuak daudenak	3

BANATUTAKO JAKI KOPURUA (kiloka)

1.118.768


... bertoko nahiz estatuko Enpresa, Erakunde, Elkarteeek... emana	673.588
... 2016ko Azaroan Bilketa Erraldoian norbanakoek emanak	213.000
... Europako Elikagaien aldeko Laguntza Planak emanak	120.900
... FESBAlek emanak	82.340
... Fruta eta Barazkien Programa Nazionalak emanak	28.940

BANATUTAKO JAKI MOTAK




Zifra

JAKIAK NORK EMANAK



DIRUA NORK EMANA



Txosten ekonomikoa

DIRU SARRERAK 2016 URTEAN

ERAKUNDE OFIZIALAK

EUSKO JAURLARITZA	34.000,00	
GASTEIZKO UDALA	12.000,00	
LEGUTIOAKO UDALA	3.000,00	
DULANTZIKO UDALA	2.500,00	
ARRAZUA-UBARRUNDIA UDALA	2.432,22	
DONEMILIAGAKO UDALA	1.431,55	
ARABAKO FORU ALDUNDIA (ONGIZATE INSTITUTUA)	1.113,29	
BURGELUKO UDALA	1.000,00	
ARTZINIEGAKO UDALA	1.000,00	
ARETXABALETAKO HERRI BATZARRA	66,00	58.543,06

FUNDAZIOAK

AMANCIO ORTEGA	18.021,83	
FESBAL/U.E.	9.771,23	
VITAL FUNDAZIOA	9.000,00	36.793,06

ENPRESAK (+1.000,00)

MICHELIN ESPAÑA ETA PORTUGAL, S.A.	17.500,00	
R.P.K. S. COOP	5.720,00	
TRANSFORMADOS DE LA PATATA S.L.	1.900,00	
BICICLETA CAJA RURAL	1.720,00	
GORBEA IRRATIA	1.393,00	
RULISA VITORIA, S.L.	1.000,00	
BESTELAKOAK	3.586,49	32.819,49

NORBANAKOAK

IZENDATUAK/IZENGABEAK	31.675,55	31.675,55
-----------------------	-----------	------------------

OROTARA

159.831,16

Txosten ekonomikoa**DIRU GASTUAK 2016 URTEAN****EROSKETAK**

JAKI EROSKETAK	7.020,47	
BESTE EROSKETAK	1.173,31	8.193,78

GASTU OROKORRAK

PABILOIKO JABEEN ELKARTEA ETA ALOKAIRUA	7.087,38	
KONPONKETAK ETA MANTENIMENDUA	10.672,88	
IBILGAILUEN KONPONKETAK	3.504,97	
ZERBITZU PROFESIONALAK	19.101,13	
GARRAIOAK	2.755,17	
ASEGURUAK	3.703,36	
PUBLIZITATEA/KATALAGOAK	5.474,68	
ARGI INDARRA, URA, GASA	9.531,65	
ERREGAIK	10.113,44	
TELEFONOA	2.818,54	
BULEGORAKO MATERIALA	2.801,81	
ZERGAK	1.034,57	
BANKU ZERBITZUAK	135,84	
BESTELAKOAK (ORDAIN SARIAK, BIDAIK, ARROPA)	8.225,92	86.961,34
HIGIEZINAREN AMORTIZAZIOA	16.518,65	16.518,65

LANGILE GASTUAK

SOLDATAK	25.148,93	
SEGURIDAD SOCIAL	7.710,86	32.859,79

OROTARA**144.533,56 144.533,56****2016 URTEKO LABURPEN EKONOMIKOA**

SARRERAK OROTARA	159.831,16
GASTUAK OROTARA	144.533,56
EMAITZA	15.297,60

2017 urtean garatzeko ekintza-lanak

BARNE MAILAN

- Barne kudeaketaren Organigrama berria ezartzea. Lan arlo bakoitzaren ekinbideak antolatzea
- Beste Bankuren batean erabili eta FESBAlek ontzat emandako baliabide informatiko aitzindaria. Dugun sistema informatikoaren oinarri izatea nahi da.
- Kanpainen Lan Taldearen Prestakuntza

KANPO MAILAN

- Arabako Lurralde Historikoko behartsuenak zaintzea. Arabako Foru Aldundiak babestutako 'Landa eremuko Pobrezia' egitasmoa.
- 'Ikastetxetik Auzora' egitasmoa. Arabako Elikagaien Bankuak "Ikastetxetik Auzora" egitasmo hezitzailea garatzea babesten du, SERSOk sustatua, eta Gasteizko ikastetxe batzuekin batera elkarlanean jardutea 2016-2019 urtealdian.
- Izoztuen egitasmoa, Euskadiko Bankuekin batera
- Onuradunak balioetan prestatzeko egitasmoa
- Ikastetxeetan balioak lantzeko egitasmo didaktikoa
- Fruta eta barazki programa. Programa hau onbidezko elkarte berrietara zabaltzea

